



Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2022ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2022ko ARAUDI PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2021SSEC0029).”

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 20 bilkuran daudela, Udal Plenoak, aldeko 11 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 9 abstentziorekin (EH BILDU eta PODEMOS ARRASATE), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

- 1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.*
- 2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”*

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da, eta horiek jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak egin dituzte 2022ko Araudi Planean sar daitezzen:

2022RAKO ARAUDI PLANA

GARAPEN KOMUNITARIOKO BATZORDEA

ERREGELAMENDUA, PERTSONA NAGUSIENTZAKO EGUNEKO ARRETA UDAL ZERBITZUA ARAUTZEN DUENA.

Gizarte zerbitzuen sailetik 2022an zerbitzu berri bat abian jartzeko aurreikuspena dago.

Kodea	H22/00098	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ots./07	CUDO	000.0055.AAAANPBWL.AGK2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANPBWL.AGK2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

Erregelamenduaren xedea:

Arrasateko adineko pertsona zaurgarriei, ahulei eta 1. mailako mendekotasuna dutenei eguneko arreta emateko udal zerbitzua arautzea. Zerbitzu horrek dispositibo bat jarriko du pertsonen eskura, intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaien egunean bertaratzeko, beren arreta-premia espezifikoei lotuta.

Zerbitzu berriak honako taldeei eskainiko zaie:

- 65 urtetik gorakoak, mendekotasun-arriskuan edo -egoeran daudenak (1. maila, BVDn 25 eta 39 puntu artean lortu dituztenak). Baldin eta bere osasun psikofisikoko egoerak intentsitate txikiko zerbitzura behar bezala egokitzeko aukera ematen badu eta bere beharrak asetzeko nahikoa bada.
- Mendetasuna aitortu gabeko adinekoak edo 25 puntutik beherako puntuazioa dutenak MBBEn, 75 urtetik gorakoak, hauskortasun-egoeran daudenak.
- Isolamendua, bakardadea, abandonua edo tratu desegokia jasateko arriskuan edo egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak.

OGASUN, DIRUZAIN'TZA ETA ONDARE SAILA:

1.- ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea da:

- a) Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- b) Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregelatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- c) Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregelatzea.
- d) Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araez, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplizte aldera.

Kodea	H22/00098	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ots./07	CUDO	000.0055.AAAANPBW.L.AGK2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANPBWL.AGK2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

2.- ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA. (ALDAKETA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuena onartu ondoren, Arrasateko Udalak 2011ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran onartutako “Kontratazioko administrazio prozedurak arautzen dituen Udal Ordenantza” aldatu beharra dauka, araudi berriari egokitzeko.

Ordenantza honen xedea izango litzateke kontratazioari buruz indarrean dagoen araudi berria garatzea, eta Udalean kontratazio publikoa behar den moduan erabiltzea ekarriko duten prozedurak erabili ahal izateko, udal jarduerak behar den moduan funtzionatzeko, legearekin inolako kontraktasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.

3.- 2022RAKO ORDENANTZA FISKALA (ALDAKETA)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak.

4.- 2023RAKO ORDENANTZA FISKALA (ALDAKETA)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak.

OBRA, ZERBITZU, MANTENTZE ETA AUZOEN BATZORDEA:

ERREGELAMENDUA, BIDAIARIAK HERRI BARRUAN ETA HERRIZ KANPO KOTXEZ GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea automobiletan egiten den bidaiarien hiri-garraioko zerbitzuak arautzea da, kontagailu taximetroa dutenak eta Arrasateko Udalak emandako lizentzia dutenak.

Kodea	H22/00098	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ots./07	CUDO	000.0055.AAAANPBWL.AGK2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANPBWL.AGK2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

BARNE ANTOLAKETA BATZORDEA:

UDALEKO LANGILEEK TELELANAREN BIDEZ MODALITATE EZ PRESENTZIALEAN JARDUTEKO ARAUDIA

Irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak, Administrazio Publikoetako telelanaren arloko eta Osasun Sistema Nazionalean COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko giza baliabideen arloko premiazko neuriei buruzkoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina (aurrerantzean EPOELTB) aldatu du 47 art. bis bat gehituz. Oinarrizko esparru arautzaile bat ezartzen da herri-administrazio guztientzat, eta kontuan hartzen da, halaber, Estatuak lan-arloko legeriaren gainean duen eskumena lan-kontratudun langileen kasuan. Aipaturiko artikuluan jasotako asmo-adierazpenengatik, bai erregulazioaren laburtasunagatik (artikulu bakarra) ondorioztatu daiteke administrazio publikoek telelana arautzeko tresna arauemaile propioak garatu ahal izango dituztela beren erakunde publikoetan. Jakina, erregulazio-tarte zabal hori osatzeko, lehenik eta behin, Estatuako oinarrizko legeria garatzean autonomia-erkidegoetatik datozen arauak erabiliko dira. Beraz, araudi horren xedea da Arrasateko Udaleko langileentzat telelanaren bidez modalitate ez presentzialeko jarduteko aukera arautzea.

LAN POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA (ALDAKETA)

Udalbatzarrak 2009ko abenduaren 3an onartu zuen behin betikoz Arrasateko Udalaren Lan Poltsak Kudeatzeko Araudia. Orduetik hona emandako denboran frogatu ahal izan bere edukiaren arlo batzuk aldatu eta egokitzearen komenientzia. Araudi horren xedea hautaketa arloan indarrean dagoen araudia egokitzea izango litzakete, beti ere legearekin inolako kontraktasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.

UDALTZAINGOA:

ARRASATEKO UDALTZAINGOAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ARAUDIA

Maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitakoa garatzeko, (58/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikatu beharreko esparru-arauak ezartzen dituen), erregelamendu bat egin behar da.

Araudiaren xedea da Arrasateko Udaltzaingoak arautu beharreko antolaketa eta funtzionamendu-irizpideak ezartzea, indarrean dagoen legeriara egokituta.

Kodea	H22/00098	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ots./07	CUDO	000.0055.AAAANPBWL.L.AGK2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANPBWL.AGK2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

Hori horrela, Barne Antolaketaren batzordeak, EAJ-PNV eta PSE-EEren ordezkarien aldeko botoekin eta EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak udal taldeetako ordezkarien abstentzioarekin, Osoko Bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2022rako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2022ko otsailaren 7an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H22/00098	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/ots./07	CUDO	000.0055.AAAANPBW.L.AGK2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANPBW.L.AGK2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

